



DONOSTIA 2016

EUROPAKO KULTUR HIRIBURUAREN LEGATUAK



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
DSS2016.EU



DONOSTIA 2016

EUROPAKO KULTUR HIRIBURUAREN LEGATUAK

1. Sarrera

Kultura Eraldatzailea Elkarbizitzaren Hamarkada baterako, horixe da Europako Kultur Hiriburutzaren hautagaitzarako hiru erakundeek -Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak- aurkeztu zuten programaren titulua. Titulu eta programa horrek euskal gizarteak aurrean zuen erronka kolektibo itzelari erantzun nahi zion, kultura bitartez erantzun nahi ere: "bakea lortu eta bizikidetzaredu bat sortu Europako gainerako hiriekin partekatzeko, honako haueetan oinarrituko dena: giza eskubideen errespetua, bakearen kultura, balioen araberako hezkuntza, eta hizkuntza- eta kultura-aniztasuna. Kultura eta heziketa funtsezko ardaztat ikusten ziren «europar gizartea jasaten ari den indarkeria, tolerantzia eza eta gatazkak prebenitzeko eta europar hiriak BIZIKIDETZARAKO gune bilakatzeko». Programa horrek "herritar aktibo, arduratsu eta solidarioa" eskatzen zuen bere aldetik, "eraldatzeko gaitasunaren" indarraren jabe zena. Horrexegatik zebiltzen aipatzen, hain zuzen ere, Herritarren energia-olatuak eta Elkarbizitzarako Kultura.

Hautagaitzako Programaren **ikuspegia** bat dator erronka horrekin; izan ere, hona hemen 2026rako irrikatzen zena:

- Pertsoneri gatazkak gainditzeko eta bakea partekatuz komunitate solidario batean elkarlanean aritzeko gaitasunak eta tresnak eskainiko dizkien gizarte bat.
- Gizarte irekiago bat, zeinean aniztasuna aberastasunaren iturri gisa errespetatu eta aintzatetsiko den, eta berdintasuna sustatuko.
- Herritarrek era aktiboagoan eta arduratsuago parte hartuko duten gizarte bat.
- Gizarte kosmopolitagoa, tokikoa Europarekin eta munduarekin lotuko duena, norberaren

identitatetik abiatu eta besteenganako ekarpena egingo duena, eta identitate hori zabalduz hazten joango dena.

- Gizarte sortzaile bat, ekonomia, ingurumen, gizarte nahiz kultura jasangarriaren aldeko oinarri berriak sortzeko gai dena.

Horrekin batera, onartu egiten zen autoezarritako helburu horiek kulturaren ohiko eremuak gainditzeko zituztela, lortu nahi ziren helburuak hiru baitziren: bake iraunkorraren kultura txertatu, gure lurraldearen aniztasunaren (hizkuntzarena, erlijioso, kulturarena eta gastronomikoa) onuz baliatu eta gure geografia eta paisaia apartei (badiak, kulturguneak, kostaldeko bidezidorrak, eta itsasargi-kate bat) balioa eman. Helburu horiek betetzeko ardatz izan dira itsasargiak, horien inguruan egituratu baitira burutu diren 3.000tik gora ekintza: Bakearen Itsasargia, Ahotsen Itsasargia eta Bizitzaren Itsasargia.

Programan helburu batzuk erakusten ziren, eta bete egin nahi ziren horiek:

- Kooperazioa sustatu kultura-eragileekin, artistekin eta Europako hiriekin.
- Europaren kultura-eta hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna nabarmendu, erakunde, kultura-eragile eta enpresen artean lankidetzaren sareak eta elkarren arteko kooperazioa sustatu.
- Gure lurraldean ezarri diren etorkinek sortu duten hizkuntza-errealitate berriei ere arreta jarri.
- Europar gastronomia alorrean ematen den aniztasuna azpimarratu, lehendik zeuden sareak erabiliz tradizio gastronomikoak partekatzeko Europar eta kontinenteaz harago.

Gertatu zen Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu izendatu eta hilabete gutxitara ETAK jarduera armatuaren behin betiko etena aldarrikatu zuela. Alabaina, aurkeztutako programaren helburuei ez zion horregatik

indarrak kentzen. Asko zegoen egiteko, eta oraindik ere asko geratzen da gure gizartean eta Europan bakea, bizikidetzak, giza eskubideekiko eta aniztasunarekiko -hizkuntza eta kultura aniztasuna barne- begiramena finkatzeko.

Europako Kultur Hiriburutzak epe ertain eta luzera sortuko lituzkeen ondorio sozio-ekonomiko eta kulturalak nahiz hirigintzakoak aztertzen jarrita, erakundeek asmo hauek azaltzen zituzten: kultura-politikak berri, Europako beste eragile eta hiriekin batera proiektuen produkzioa sendotuz; hautagaitzaren lurraldea eta Euskal Eurohiriaren mugaz gaindiko korridorea kohesionatu; ekipamendu sozio-kulturalari (San Telmo Museoa, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, Basque Culinary Center...) Europara begirako dimentsioa eta proiektzioa eman; hiriko espazio publikoa kultura-jarduerarako eta herritarren bizikidetzarako agertoki bihurtu.

Horregatik, Steven Green-ek, lehengo urtera arte Europako Kultura Hiriburuaren programa hautatzeko eta gainbegiratzeko mahaiko presidente izandakoak, honela laburbildu zuen DSS2016Euren ondarearen nahia:

- Elkarrekin bizitzen ikasi (hori izan da Hiriburutzaren urteko lema: bizikidetzarako kultura).
- Pertsonen sare bat.
- Pertsonen ahalduntzea.
- Kultura-eredua berri.
- Ko-produkzioa (musikan, dantzan, etab.)
- Begirune handiagoko gizartea, bidezkoagoa, solidarioagoa, ulerkoragoa.
- Indarkeriari lotutako hiri izatearen irudia apurtu.

Hasierako programaren ondareari begiratzen badiogu¹, aipatu ditugunak biltzen dituela ikusiko dugu, formulatzeko ezberdintasun txiki batzuk gorabehera, baina baita besteren bat ere (esate batera, artisten egonaldiako nazioarteko erreferente bilakatzea, hizkuntza-aniztasunaren

iraunkortasuna, edo kulturari lotutako nazioarteko turismoa).

Azkenik, Eskualdeen Batzordearen 2007/2019 aldirako Irizpenak honela zioen 1.2 puntuan: «Eskualdeen Batzordea konturatzen da EKHren inpaktua oraindik handiagoa izan daitekeela baldin hiri baten epe luzerako kultura-garapenaren estrategiaren barruan egiten bada»; gauza bera azpimarratzen du European Capitals of Culture 2020-2033. Guide for cities preparing to bid agiriak, zeinak esaten baitu ECoC bat epe luzerako kultura-garapenerako estrategia baten parte izan behar litzatekeela, inpaktu sozial, kultural, ekonomiko eta jasangarria sortzeko gauza izateko. Beste hitzekin esanda, ondarea bermatzeko modurik hoberena da kultur hiriburutzaren urtea hiri baten estrategia orokorrarekin txertatzea, loturak garatzen baitira kulturaren, hezkuntzaren, turismoaren, lurralde-plangintzaren, gizarte-zerbitzuen eta abarren artean. Donostiak badu tresna bat, 2020 Plan Estrategikoa, eta bertako ikuspegi eta helburuak (horietako asko garatzen joan dira onartu zenetik) guztiz bat datoz kultur hiriburutzarekin: hiri kohesionatu bat, gizarte bazterkeriarik gabea, indarkeriarik gabea, herritar aktibo eta parte-hartzaileak dituen; bere euskal nortasunaz harro den hiri bat, kultura-nortasun anitza modernitatearekin, globalizazioarekin eta beste herrialdeetatik etorritako jendearen integrazioarekin uztartzen jakin behar duena. Kulturaren, hezkuntzaren, ezagutzaren eta berrikuntzaren alorrean nabarmenduko den hiri bat. Ingurumen, gizarte eta ekonomia ikuspegitik jasangarritasunaren eredu datekeen hiri bat, non kulturak funtsezko garrantzia izango duen alor guztietan, kultura-industrialetik hasi eta arte-adierazpen guztietaraino, hizkuntzetatik gastronomiaraino.

¹ Citizens use responsible freedom; Respects dignity and human rights; Individuals use voice for positive pride; Change in mentality, culture to solve conflict; Sustainability of linguistic diversity; Regional reference point for artist residencies; Citizen participation in society; Shared knowledge, ICT priority; International profile tourism related to culture.

Bakea da Plan Estrategikoaren beste helburuetakoa, balioak, biktimen sufrimendua eta errespetuaren garrantzia aintzatestetik sortutako bakea, ordea, balioen heziketan Donostia erreferente izatera irits dadin. Eta baita desgaitasuna duten pertsonen arretan erreferente izateko ere.

Bukatzeko, 2020 Plan Estrategikoak bete-betean egiten dio aurre ingurumenak azaltzen digun erronkari: Cristina Enea Fundazioa sortu da, Klima Aldaketaren kontrako Plana, eraikin publikoetan energia lortzeko sistema alternatibo batzuk jarri dira...

Laburbilduz, Bakearen, Ahotsen eta Bizitzaren Itsasargietan, enbaxada mugikorretan eta abarretan burututako jarduerak guztiz bat datoz Plan Estrategikoan jasotzen denarekin.

2016. urtea amaitu den honetan, heldu da garaia Donostia 2016 Europako Kultura Hiriburuak utziko duen legatuarekin erakundeek hartuko dituzten konpromisoak zehazteko, DSS2016EU Fundazioaren Estatutuen 3. artikuluan ezarritakoa betez, hots, 2016. urtea amaitzen denean Fundazioa arduratuko da, alde batetik, «ezarritako helburuen esparruan proiektuaren ondare sozio-kulturala ziurtatzeko egitasmoak eta jarduerak garatzeaz», eta, bestetik, «lekukoa eta ikasitakoa hirian eta lurraldean lan egiten duten egitura eta profesionalen eskualdatzeko prozesuak eta mekanismoak aktibatzeaz».

Orain arte esandakoaren arabera, duela zazpi urte aurreikusten zen legatuari erreparatuz gero esan dezakegu prozesuez eta metodologiez ari garela, ekintza zehatzez bainoago. Hortaz, bada, legatuak prozesu horien jarraipena ziurtatu behar luke, Hiriburutzaren harira burututako jardueri jarraipena emanez, edo, bestela, helburu bereberri erantzuten dieten etorkizunerako begirako jarduera sortu berriak gauzatu. Ikuspegi hori Udalbatzaren 2008/04/15eko Adierazpenaren haritik doa. Izan ere, adierazten zuen Europako Kultura Hiriburuak lehen helburutzat zeukala

“epe ertainera begirako tresna estrategiko bat izatea helburu hauek lortzeko: bakea, euskal gizartea sentsibilizatzea oinarri demokratikoak errespetatuz, eta gizarte kohesio handiago bat lortzea garapen jasangarriagoaren eskutik”.

Planteamendua, beraz, hau izan behar luke: kulturak nola jarraituko du laguntzen bakea sustatzeko, giza eskubideak errespetatzeko, pertsonen arteko bizikidetzarako edo inklusiorako? Kulturak nola jarraituko du laguntzen ingurumenarekiko errespetuan eta biziera osasungarriago batzuen alde? Nola segituko dugu sareei eusten eremu urriko beste kultura eta hizkuntzekin? Nola segituko dugu sareei eusten Europako beste herri batzuetako kultura-eragileekin?

Egin ditugun galdera horiei erantzuteko, ikus dezagun zer lortu izan den 2016. urte honetan. Alkateak hiriaren egoerari buruz 2016/10/20ko Osoko Bilkuran esandakoak gogoan, hau esan daiteke:

- Programa aurreikusita zegoen moduan joan da betetzen, jendearen parte-hartze handiarekin gainera.
- Bizikidetzaren balioa lehen planora ekartzen lagundu du 2016k;
- Babesle pribatu bat izatea lortu da
- Behar bezala erantzun zaio erronka itzela zirudienari, hots, hiria prest egotea Hiriburutzaren urteko ekitaldi guztiak hartzeko
- 2016k hiria nazioartera zabaldu du, eta balio positiboetan oinarritutako nazioartekotzea izan da iraganen hiriak nazioartean zuen irudiaren aldean, gatazkari eta indarkeriari lotutako irudia baitzuen. Nazioartean izan duen protagonismo hori jaso izan dituen bisita ofizialen kopuruan islatu da, eta baita hiriak beste herrialdetako komunikabideetan (Europar, Amerikan eta, are, Asian) izandako oihartzunean ere. Senidetasun harremanen bila hurbildu zaizkigun hiri guztiak dira diogunaren beste frogak.

Hasierako balorazio horri esker ondoriozta genezakeen hasi zirela betetzen jada legatu gisa uzteko lortu nahi ziren helburu batzuk (parte-hartzea, boluntariotza, indarkeria ezarekin loturiko hiriaren irudia...), eta berretsi egin du hori *Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren ebaluazioa* izeneko txostenak (LKS eta Prospektiker enpresek eginda). Txosten horren arabera:

- Egindako jarduera gehienek osagai berritzaile handia izan dute, eta, horri esker, Kulturaren Behatokiak kultur eskaintzaren berrikuntzaren inguruan egiten duen rankingean laugarren postua lortu zuen Donostiak lehenbiziko aldiz, eta hirugarren postua, kultur eskaintzaren Estatuko rankingean, «Bake-ituna» eta «Udagaugau bateko ametsa» ekimenen aipamen eta guzti.
- Egindako jarduerak eragin dute Hiriburutzan parte hartu duten kultur sektoreko eragileen arteko sareak sendotzea eta sortzea; guztira 3.180 eragilek hartu dute parte, eta horietatik 387 atzerritarrek ziren. Horrek esan nahi du, batetik, Hiriburutzak sektoreko eragileen artean kultur proiektuen garapena ahalbidetu eta lagundu duela eta aurrekontuaren zati oso handi bat (% 80 baino gehiago) Euskal Herriko eragileek, enpresek edo pertsonak kudeatu dutela. Bestetik, programak izan asmo zuen Europako dimentsioari ere erantzun zaio:
 1. Hiriburutzako lau proiektutatik batek Europako lankidetzak izan du.
 2. Hizkuntza txikiak babesten engaiatutako artista, itzultzaile, idazle eta gizarte-eragileek osatutako nazioarteko sare bat ehundu da (Itzultzaile berriak, Komisario berriak, Begirada Berriak, Corners-ak, Other Words, Hitzargiak, Hizkuntza Gutxituen Nazioarteko Foroa, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa...).
 3. Europara begirako gure jaialdien, gure ekipamenduen (San Telmo Museoa, Musika eta Dantza Eskola, Jazzaldia edo Victoria Eugenia Antzokia) dimentsioa eta proiektzioa ere indartu da.
- Europako dimentsioa ere lagundu dute hiru enbaxada ibiltariek –Tosta, Europa Transit, Biziz- kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna nabarmendu baitute, helburu honekin, hain zuzen ere: «Europak osatzen duen kultur mosaiko zabala aldarrikatzea, bertan bizi diren desberdinen arteko ulermena sustatzea eta Hiriburutzaren proiektua atzerrian ordezkatzeko».
- Era berean, Europako kulturek partekatzen dituzten ezaugarrien balioa nabarmendu da. Proiektuen herenak europar sentimenduari eta kontzientziari lotutako gaia jorratu du zuzenean, baina europar dimentsioa hainbat sorkuntza-prozesutan ere txertatu da (jada aipatutako arte-egonaldiak, baterako sorkuntzarako nazioarteko espazioak, etab.).
- Ehundutako sareek museo, antzerki eta erakunde publiko zein pribatuen arteko lankidetzak sustatu dute (Cristina Enea Fundazioa, Aquariuma, Kutxaren Ekogunea...).
- Egindako jarduerari esker kultur ekipamendu zenbaitek, San Telmo Museoa edo Victoria Eugenia Antzokiak adibidez, beste erakunde batzuekiko elkarlanak sendotu dituzte. Tabakalera egin dira jardueren % 12,8 (2015eko udazkenean ireki zen), eta horrek lagundu du espazio hori dinamizatzen eta hiriko kultur azpiegituren zirkuluaren barruan txertatzen.
- Adiorik gabe programaren berrikuntzak biktimen memorian aurrera egitea ekarri du; ebaluazio-txostenaren arabera, proiektuak biktimen irudi estereotipatua hautsi du eta aukera eman digu haien bizitza- eta gizatasun-esparruetara jotzeko. Horrez gain, proiektuari esker handitu egin dira sufrimenduaren ulergarritasuna zein Giza Eskubideekiko konpromisoa, ohiko irudi estereotipatuetatik haratago. Beste horrenbeste esan genezake Bakearen itsasargia proiektuaren barruan egindako

jarduera gehienez.

- Herritarren parte-hartzea izan da nabarmendu behar den ezaugarrietakoa, Olatu Talka, Herritarren energia-olatuak, are ebaluazioa egitean. "DSS2016EU proiektua ez da bakarrik 2009an abiarazitako parte-hartze prozesu baten emaitza", programaren garapena ere bada.
- Boluntariotza-plan bat sendotu da, zeinak herritarrak inspiratu, gaitu eta ahaldundu baititu hainbat mailatan eredu berriaren protagonista aktibo eta engaiatuak -2016az harago- izateko, espazio eta kanal ugari eskaintzen zaizkielarik proiektuaren fase ezberdinetan, horiek sortu eta garatzetik horien ebaluazioa eta jarraipena egiteraino. Tresna horrekin pertsona anonimoen parte-hartzeko gogoia eta energia bideratu nahi izan da; izan ere, proiektuari ahal zuten guztia emateko eta laguntzeko eskaini dira.
- Azkenik, Kultur jarduerak garatzeko guneen balioa nabarmentzen lagundu du Hiriburutzak, bai publikoak (Cristina Enea, zubiak, plazak eta kaleak) bai pribatuak (gehiago erabiltzen ez diren merkataritza-lokalak) edo kolektibo zehatz bati lotutako guneak (ikastetxeak, haurtxokoak, gaztelekuak...).

Orain arte esandakoarekin, ondarea bizikidetzaren eta parte-hartzearen inguruan ardaztu beharko litzateke («Ondare sakona utzi bizikidetzaren eta parte-hartze alorrean», zioen Hiriaren Plan Estrategikoak). Eta, horri, kultura arloan berritzeko eta nazioartekotzeko den bokazioa gehitu behar zaio. Eta, bukatzeko, Euskal Herriko gainerako lurraldeekin lortutako lankidetzaren eta harreman-estutzea, Nafarroa eta Iparraldekoekin barne.

Beste alde batetik, Hiriburutzaren ondare sozio-kulturala aztertzean Donostiak eta Fundazioko erakundeak ez dute hutsetik abiatu beharrik; hori da DSS2016ren beste ezaugarrietako bat. Bizikidetzaren, berrikuntzaren eta kulturaren nazioartekotzea era naturalean bere gain

hartzeko kapazak diren ekipamendu eta sozietate -bakarka edo beste erakunde batzuekin batera- sare batekin kontaktzen dute. Zentro horiek, halaber, prest daude herritarren parte-hartzearen, inklusioaren eta ahalduntzearen ondarea jasotzeko. Esan nahi baita, badugula oinarri sendorik «lekukoa eta ikasitakoa hirian eta lurraldean lan egiten duten egitura eta profesionalei eskualdatzeko», DSS2016EU Fundazioaren helburuetan jasotzen zen moduan.

Erakunde eta ekipamenduen artean, honako hauek ditugu:

1. Aieteko **Giza Eskubideen Baliabide Pedagogikoen Zentroa**, zeinak lan-eremu hauek izango baititu: pedagogia hezitzailea, gizarte-pedagogia eta herritarren parte-hartzea. Zentro horren pedagogia-baliabideek bi ardatz tematiko nagusi izango dituzte: a) giza eskubideak, bakearen eta bizikidetzaren kultura, eta b) giza eskubideak, bereizkeriarik eza eta aniztasuneko bizikidetzaren. Proposamena hiru erakundeek elkarren artean Donostia / San Sebastian 2016 Europako Kultura Hiriburuan partekatzen duten lan-esparrua garatzetik sortu da.
2. **Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua**, azaroaren 27ko 4/2014 Legearen bidez sortu zen, eta helburuen artean (3. artikulua) ditu memoriak eragin duen ondare kolektiboa, bizikidetzaren demokratikoaren oinarri diren balioen eta printzipioen defentsarena, gordetzea, garatzea eta zabaltzea, horren alderdi ordezkaezin bat biktimen lekukotasuna delarik; eta giza eskubideak eta bakearen balioak zabaldu, sustatu eta defendatzea.
3. **Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia**, bakea behin betirako sendotzeko eta bizikidetzaren gizarik normalizatzearen Lehendakariari estrategia eta jarduerak zehazten eta zuzentzen laguntzen dion organoa.
4. **Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza**, zeinak

Bizikidetza Lantzen proiektuaren bitartez, besteak beste, udal-esparruan bizikidetza eta giza eskubideekiko errespetua sustatzen dituzten dinamikak bultzatzeko lanean jarduten duen. Hiriburutzan Tira-birak erakusketari buruzko udako ikastaro baten bitartez parte hartu du (EHUren Udako Ikastaroen barruan).

Organo-sare hori da, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen nahiz aniztasunaren errespetuzko ondarea betikotzeko, hots, Bakearen Itsasargiak landu dituen balioak iraunarazteko, funtsezko tresna.

5. **TABAKALERA**, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren artean jarritako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak bokazio bikoitza du: produkziarako zentroa izatea, eta jardueren programazio publiko bat eskaintzea. Artisten eta sortzaileen profesionalizatzea laguntzeko tokia izateaz gain, hartzaile ezberdinentzako programazioa ere sortzen du, eta kultura garaikidera eta sormenera hurbildu eta ezagutzeko tresnak jartzen ditu herritarren esku. Zentroa, beraz, funtsezkoa da ondarearen zati bat bere gain hartzeko, behintzat honakoekin zerikusia dutenena: kultura-berrikuntzarekin, nazioarteko sareen sorrerarekin, arte-egonaldiarekin, eta pertsonen ahalduzkoarekin (baita IKTetan ere). Egitez, Tabakalerako kultura-egitasmoa lau lan-ardatzetan egituratuta dago, eta programa bera ere horietan oinarritzen da. Hauek dira: arte-praktika garaikidea, bitartekaritza, kultura digitalaren laborategiak (Hirikilabs) eta sormenaren liburutegia (Ubik), non geratuko baitira bilduta Hiriburutza bitartean sortutako material guztiak. TABAKALERAK dagoeneko aktiboki hartu du parte Hiriburutzaren programan, Hirikilabs, Ikusmira berriak eta EIE Cine (Zinemaldiarekin lankidetzan burututako zinema ikasleen nazioarteko topaketa) edo ALF (Arkitektura: film-mintzairak) bezalako proiektuak hartu baititu Cristina Enea Fundazioarekin batera.
6. **Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza**, hizkuntza-politika kontuan eskumena duen organo gorena, dituen eginkizunak betetzen eta bere jarduera-esparruan euskara indarberritu nahian ia eragile guztiekin ari da lanean eta eremu urriko hizkuntzak suspertzea xedetzat duten erakundeen nazioarteko sareko partaidea da, batik bat Network to Promote Linguistic Diversity-koa.
7. **Etxepare Euskal Institutua**, xedetzat euskara eta euskal kultura mundu osoan zehar zabaltzea duena; euskara eta euskal kulturaren kanpoko enbaxadorea da eta euskararen eta diziplina guztietako euskal sortzaileen nazioartekotzea bultzatzen du: literaturatik arte eszenikoetaraino, eskultura, pintura edo musikakoak barne. Programa bat abiarazia du dagoeneko Hiriburutzaren barruan, Itzultzaile Berriak, EIZI Ekin (Euskal Itzultzaile eta Interpretuen Elkarte) batera, xede jakin batekin: atzerriko 8 literatur itzultzailei aukera ematea eurek berek hautatutako euskal idazleen arteko lanak jatorrizko hizkuntzetara itzultzeko. Eta baita Joan-etorriak artisten egonaldien programa ere, Donostia Kulturarekin elkarlanean.
8. **Emakunde**, Emakumearen Euskal Erakundea, Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, berdintasunerako politikak diseinatu, bultzatu, haien inguruan aholkatu, koordinatu eta ebaluatzen dituena eta gizartea sentsibilizatzen duena, EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko xedez.
9. **Cristina Enea Fundazioa**, honako baliabide hauekin: Ingurumen Baliabideen Etxea, Uria Interpretazio Zentroa, Urgulleko Natur Txokoa eta Bizikletaren Behatokia. Ingurumen Baliabideen Etxeak, hain zuzen, iraunkortasun globalaren aldeko norabide-aldaketa sustatu nahi du heziketaren eta sentsibilizazioaren tokiko eremutik, jardueretan aldaketak laguntze aldera. Bere heziketa-programak, baliabide didaktikoak eta sentsibilizazio-ekintzak hiru ardatz garrantzitsuren inguruan antolatzen dira: hartzaile guztiak

oro har, hartzaile profesionalak eta, azkenik, hartzaile ikasleak, etorkizuneko apustu diren bezainbatean. Hiriburutza baino lehen ere HidroLogikak antolatzen zuen, baina jazoera horren ildotik proiektua nabarmen hazi da, asmoz zein helmenez. Duen azpitolua, Ibaitek badiara, eta edukia testuinguru horretan ulertu behar dira; jarduera-programa bat abiarazi du herritarrek Urumearekin duten harremanean sakontzera eta ibaiarekiko begirada artistikoa bultzatzera zuzendua, ikus-entzunezko sormenez zein beste erreminta batzuen bidez sentsibilitatea garatzen delarik.

10. **Donostia Kultura**, Donostiako Udalaren enpresa erakunde publikoa, hiriaren kultura eta festa beharrak bete nahi dituen, berak kudeatzen ditu hiriaren liburutegi eta kultur etxeen sarera, Principal Antzokia eta Victoria Eugenia, San Telmo Museoaz gain. Kultura jarri nahi du hiria garatu eta mundura zabaltzeko aktibo nagusi gisa. Kultura-diziplina guztietako programak prestatzen ditu, jaialdiak -Nazioarteko Jazz Jaialdia, Giza Eskubideen Nazioarteko Jaialdia- antolatzen ditu, eta, batik bat, kultura-plataforma berriak bultzatzen ditu hirian, ekimen publikoak eta pribatuak uztartuta. Donostia Kulturak gidatzen du Europa Creativa-ren Other Words programa, eremu urriko hizkuntzetan idazten duten europar idazleen sarea. Jarduera asko burutu ditu Hiriburutzaren baitan, proiektu ugari hartu du parte, hala nola: Donostiapedia (Donostiako Udalaren Euskara Zerbitzuaren eta UPV/EHUrekin elkarlanean), Olatu Talka, Mugalariak, Kimu, Antzerkigintza Berriak, Labore, Kalebegiak, Joan-etorriak (Etxepare Institutuarekin batera), Kontukontanitz (ipuin kontakizun horietako zenbait Haur Liburutegian egin ziren) edo Rekording. Jarduera asko burutu ditu Hiriburutzaren baitan, proiektu ugari hartu du parte, hala nola: Donostiapedia (Donostiako Udalaren Euskara Zerbitzuaren eta UPV/EHUrekin elkarlanean), Olatu Talka, Mugalariak, Kimu, Antzerkigintza Berriak, Labore, Kalebegiak, Joan-etorriak (Etxepare Institutuarekin batera), Kontukontanitz (ipuin kontakizun horietako zenbait Haur Liburutegian egin ziren) edo Rekording. San Telmo Museoak, bere aldetik, Bake Itunak (Hiriburutzaren mugarrietakoa izan zen) erakusketa nagusiaren zati bat hartu zuen, eta baita Gaur/Kairos bezalako erakusketak ere, edo Sert-en ikerketa-kasuak. Elkarrizketak atalean, indartu egin dira Fantasiako eta Beldurrezko Zinema Jaialdia eta Giza Eskubideen Zinemaldia (Bakearen Etxearekin batera).
11. **Musika eta Dantzako Udal Eskola**, berak hartu zuen Hiriburutzaren beste mugarrietako bat: EMusik.
12. **Basque Culinary Center**, mundu mailan aitzindari den akademia-erakunde, gastronomia eta elikaduraren goi-mailako prestakuntza eman eta bi horiek ikertzeko, berritzeko eta sustatzeko helburua du. Jarduera hauetan hartu du parte, besteak beste: Uda-gau bateko Ametsa, Time Machine Soup, On Appétit edo Sukaldean sortzaile.
13. **Musikene** Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegia; ekarpenak eginez jardun du Donostia Europako Kultur Hiriburu izan den urte osoan, eta aipatzekoak dira inaugurazio-jardunaldian (urtarrilaren 23an), EMUSIK jaialdian (maiatzean) eta Kalebegiak (irailean) proiektuan -film labur baten soinu-bandaren eta musika-konposizioaren grabaketarekin- izan zuen parte-hartzea. Musikenek Lachenmann proiektua (otsailean) eta Johan de Meij-ekin Musikene Banda Sinfonikoaren kontzertua (urrian) gauzatu ditu Elkarrizketak programaren barruan.
14. **Zinemaldia** Nazioarteko Zinema Jaialdia, Tabakaleran du egoitza eta funtsezko eragilea izan da Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroarekin, Filmotekarekin eta Donostia Kulturarekin batera Ikusmira Berriak-en edo Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketan (CICC-rekin batera).
15. **Gordailua** Gipuzkoako Ondare Bildumen

Zentroa, Foru Aldundiaren menpeko erakunde hau ondarearen eta kulturako zerbitzu eta baliabideen hornitzaile bilakatuko da plan estrategiko berria onartzen denean. Bere funtsak jendearentzako ikusgai jarriko ditu museo-sarearen eta beste erakunde kultural batzuen laguntzaz, bere piezetara Internet bidez sartzeko aukera eskainiko dio jendeari eta «aldirako erakusketen» politika bat taxutuko du San Telmo Museoarekin eta beste erakunde batzuekin koordinatuta. Halaber, obren jendarteratzea bultzatuko du, gidatutako bisita tematikoentzako aukera jarritz, eta sareaz baliaturik Europako antzeko ekipamenduekin egingo du lan.

16. **Koldo Mitxelena Kulturunea** Gipuzkoako Foru Aldundiaren erreferentziako kultura-zentroa, liburutegiko zerbitzuak eta erakusketarako guneak biltzen ditu. Liburutegiak ospea du bere ondare- eta mailegu-funtsengatik. Antolatu diren jarduerak euskal kultura eta literaturari hertsiki loturikoak izan dira. Erakusketako espazioen artean, berriz, Erakusaretoak nazioarteko mailan ikusizko arteen gaurkotasuna erakusten digu, hango eta hemengo artista garaikideak gonbidatuz, bilduma partikularren tesi edo irakurketak aurkeztuz eta beste zentro batzuekin batera koprodukzioak eginez. Eta Ganbara Aretoak gipuzkoar artista ezkutuenetan jartzen du begirada. Hiriburutza programaren barruan, Koldo Mitxelena Kulturuneak Bake Itunak-en erakusketa nagusiaren zati bat hartu du (San Telmo Museoarekin batera), besteak beste.
17. **Mintzola Fundazioa**, bere patronatua Gipuzkoako Foru Aldundiko, Amasa-Villabonako Udaleko, EHUKo, Kutxako eta Bertsozale Elkarteko ordezkariak osatzen dute. Ahozko tradizioaren gaineko hausnarketa sustatzea du helburu, eta ahozkotasanarekin zerikusia duten diziplinen arteko elkarrekintza bultzatzea.
18. **Albaola**, Itsas Kultur Faktoria, eskulanez egindako itsas teknologia berreskuratzeko eta dagokion balioa emateko espazio berritzailea da. Bisitariarentzat zabalik egoteaz

gain, jardueren aniztasuna, dinamismoa eta nazioarteko proiektzioa dira bere izaeraren adierazgarriak. Euskal Herriaren itsas ondarea eman nahi du ezagutzera, honako osagai hauek eratutako unibertso sortzaileaz baliatuz: nazioarteko ontzigintza tradizionaleko eskola, nabigazio eskola, itsas modelismo tailerra, aienekoaren txokoa, itsas antzokiko arte eszenikoen programazioa eta Auzolan boluntario taldea. San Juan baleontziaren eraikuntza prozesua (ikerketa prozesua eskatzen du aurretik) Kultura Hiriburutzaren programarekin lotu da, eta Bizitzaren Itsasargiaren inguruan ehundutako jarduera multzoa gehitu zaio.

Aipatu ditugun erakunde eta instituzio horien esku geratuko da Hiriburutzaren programan ezarritako helburuei erantzungo dien ondarea: bizikidetzak, giza eskubideekiko errespetua, aniztasunarekiko begiramena; gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa, parekideagoa; herritarren parte-hartzea, pertsonen sarea; lankidetzak europar kultura-eragile, artista eta abarrekin; kultura-, hizkuntza-, erlijio- eta sukaldaritzak aniztasunaren aberastasunak duen balioa, lankidetzak sareak bultzatuz; gure ekipamenduen dimentsioa eta Europara begirako proiektzioa indartzea; eredu kulturala berritzea; ko-produkzioa musika, dantza eta beste hainbat eremutan...

Nolanahi ere, ondareaz ari garenean bi mota bereizi behar dira: lehendik badirenak, hau da, etorkizunean iraungo duten ageriko emaitzak, produkzioak, hala nola ezagutzaren transferentziak burututako ekintzak, batetik; eta, bestetik, hasierako helburuei erantzungo dien proiektuen, prozesuen eta metodologiaren jarraipena direnak. Eta horri guztiari hirian bertan egindako hobekuntzak gehitu behar zaizkio.

2. Ageriko emaitzak/ produkzioak

Kultur programaren baitan sortutako dokumentazio guztia, zeina UBIKen, Tabakalera, jasota geratuko baita.

ARGITALPENAK; BATZUK AIPATZEARREN

Bake Itunak erakusketaren katalogoa.

Gaur/Kairos erakusketaren katalogoa.

Ehunberri koadernoak.

Chejov vs Shakespeare, hots, batetik Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano, Eider Rodriguez, Luisa Etxenike, Laura Mintegi, Arantxa Urretabizkaia, Fernando Aramburu eta Angel Erroren artean, eta, bestetik, Bashkim Shehu, Dubravka Ugresic, Belén Gopegui, Mircea Cartarescu, Birgit Vanderbeke, Menna Elfyn, Héctor Abad eta Patrik Ourednik egileen artean sortutako gutuneria.

Uda gau bateko Ametsa, Juan Garzia Garmendiak itzuli eta DSS2016EU eta EIZI Eren artean argitaratutako testua.

Gabon Txirrita, 1982an Xabier Letek antzerkirako prestatu zuen lana.

Gida ez perfektua / An imperfect guide, alegia *Tosta* enbaxada mugikorraren produktua, hizkuntza txikietan praktika egokiak gauzatzeari buruz.

Donostiapedia, proiektuan parte hartu zuten artean ondutako liburua.

Euskal Haur eta Gazte Literatura UPV/EHUko Irakasleen Unibertsitate Eskolako ikasleen wikiproiektua; liburuak hainbat euskal egile eta ilustratzaile buruzko (Elena Odriozola, Jokin Mitxelena, Iraia Okina...) artikulak biltzen ditu.

EKOITZITAKO LANAK

(asko luzatzeko asmorik gabe, hemen ere)

Toki publikoan: Maider Lopez-en *Iturriak* instalazioa, Victor Goikoetxearen *MiramArt*, *Hormek diote*.

Ikus-entzunezkoak: *Kalebegiak*, *Europa Transiten* dokumentalak (aurten banatuko dira euskaraz Donostia Kulturak kudeatzen duen Filmazpit programaren barruan jendartean emateko), eta Ikusmira berriaketik sortutako produktuak.

Antzerki lanak: Bernardo Atxagaren *Lu eta Le*; Ernesto Caballerok, Centro Dramatico Nacionaleko zuzendariak, Cervantes-en *Trato de Argel* obran oinarrituz egindako *Tratos*. Antzerkigintza berriak: Mikel Gurrearen *Soka*, Oier Guillanen *Miss Karaoke* eta Olatz Gorrotxategiren *Coordenadas*. *Treblinkara azken trena*, ikuspegi eszenikotik berritzailea izateaz gainera giza eskubideekiko errespetua landu du eta ekainetik irailera jarduerarik ez zuten tokiei aprobetxamendua ateratu dio. *Gabon Txirrita* ikuskizunaren eszenografia.

Altzoko Haundia txotxongilo ikuskizuna, Koldo Izagirreraren testuez eta David Azurzaren musikaz lagunduta.

Erakusketak: Hitchcock, *Tirabirak*, Eresoinka.

Arte-sorkuntzak: *Labore*, *Joan Etorriak*, *Cornes of Europe* eta *Afueras/Aldiriak* (Bake Itunekoak). Pierre Gonord-en obra San Telmo Museora pasatuko da erakusketa amaitu ondoren.

Arte eszenikoen eremuko sorkuntza: Jose San Martin-en *Huts*, edo Kresala eta Verdini taldeen *Oteizaren kaxa beltza*, *Elkarrizketak* atalean.

HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN EREMUAN

Hitzargiak, www.hitzargiak.eu web-orrian bildutako hainbat herrialdetako eragileren proiektu eta praktika onak.

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa, Kontseiluak koordinaturik; Europako hainbat herrialdetako adituek parte hartu dute hura lantzen eta sozietate zibilaren eragile ugari ere bildu ditu (www.protokoloa.eus).

Beste hitzak/Other words, Donostia Kulturak gidatutako Europa Creativa-ren programa; idazleen sarea, zeinaren bidez frasierazko, mazedonierazko, eslovenierazko, irlanderaazko eta euskarazko idazleek testuak idazten baitituzte (eta idazten segituko dute) beren hizkuntzan, gero ingelesera eta aipatu hizkuntza horietara itzuliko direlarik (www.otherwordsliterature.eu, www.bestehitzak.eus)

Besterik: 2016 Bidea, euskal geografia osoa zeharkatzen duen GR-sare baten egokitzapena; Udaletxearen argiztapena. San Juan baleontzia berreraikitze proiektua abiaraztea.

3.

Ezagutzaren transferentziaz

DSS2016EU Fundazioak ezagutzaren transferentzia landu du, ikuspegi ezberdinetatik landu ere, bai proiektuak garatzean (horretarako izan dira trebakuntza-programak, laguntzakoak eta programazioa antolatzeke era bera ere), bai ondare-proposamen gisa aurkeztean. Hori guztiori bat zetorren Donostia / San Sebastián 2016ko Plan Estrategikoan jasotako helburuetakoekin, zehazki 16. arekin - metodologiak eta prozesuak bildu, dokumentatu, ebaluatu eta ikertu, ...eta metodologia berrien ereduak ezarri-. Eta ikasitakoaren transferigarritasuna (memoriak, ebaluazioak, dokumentuak...) bultzatzen duen erabakiak hartu izan dira horretarako.

HIRIBURUTZAREN ALTZOAN BURUTUTAKO TREBAKUNTZA

Tailerrak toki nabarmena izan du (% 25), eta jarduera-tipologia modura burututako topaketak, transferentzia hori laguntzen dutenak.

Jende guztiarentzako zabalik ziren ekitaldiez gain, beste prozesu asko garatu dira proiektuak lantzean, batez ere eragileekin, eta ikasketa bultzatzen du horrek (boluntariora-programa zehaztea, Street tartar gisako proiektuak, etab.) Diru-laguntzetan babesa ematea: aurkeztu diren proiektuetarako Europa Creativa gisako diru-laguntzak eskatzeko emandako babesa, olatu programen ildoko laguntza...

Trebakuntzaren ildokoak, presentziazko ikastaroen bidezko ikasketa bultzatuta eta online

bidezko prestakuntza lagunduta.

Beste ECoC batzuekin izandako harremanek besteengandik ikasteko eta geure ezagutzak erakusteko aukera eman digute. Transferentzia hori honako ekintza hauen bitartez bideratu da:

- DSS2016EUK ECoC hirien sareak egiten dituen urteko bi batzarretan (horietako bat Donostian egin zen 2014ko udazkenean) hartu du parte; esperientziak elkartrukatzen dira bertan eta eragileen arteko loturak ahalbidetzen dira.
- DSS2016EUKO kideak eta erakunde babesleak beste hiriburutzen inaugurazioetan izan dira.
- Beste hiriburutzeekin izandako bilera eta hartu-emanak gai edo eremu jakinetako ezagutza partekatzeke xedez.
- Bertan egin diren proiektuen bidez. Beste hiriburutzeekin harremanak bultzatu dituzte guztira 20 proiektuk, eta guztien gainetik Biziz (aurretik Hiriburu izandako hamahiru hiriren arteko lankidetzak batu du), Europa Transit (hiru hiriren artekoa) eta Corners (bi hiriren artekoa) nabarmendu dira.

Guztiak kontuan hartuta, ECoC abiarazi zirenetik 2020. urtera bitartean izendatutako 65 hirietatik 45ekin izan du harremana Hiriburutzak.

DSS2016EUK harreman gehien eta estuenak denboran hurbilen dituen hiriburuekin izan ditu: Pilsen (2015), Wrocław (2016) eta Aarhus (2017).

4. 2016 Europako Kultur Hiriburuaren ondarea²

4.1.

BAKEAREN KULTURA, BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK LANTZEN SEGITZEKO

Helburu horien atzetik jarraitzea ziurtatuko duten proiektuak Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzan, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren, a Giza Eskubideen Institutuan eta Giza Eskubideen Baliabide Pedagogikoen Zentroan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzan kokatuko dira:

- *Adiorik gabe*, musika eta literatur oroimenaren bitartez biktimak omentzen jarraitzeko.
- *Antzerki-foruma: Eta hik zer?*, antzerkiaren bidez indarkeriaren biktimekiko enpatia lantzen segitzeko
- *Tira-birak* eta gisako erakusketak bineta horiei bide eman zien giro sozial eta politikoa gogorarazteko, beste jarduera batzuek (hitzaldiak, tailerrak, laborategiak...) lagundurik
- *Ehunberri* bizikidetzan sakontzeari begirako herritarren ahalduntzea
- Europa Transit enbaxada mugikorraren dokumentaletatik abiatuz sortutako material pedagogikoak (hamar gatazkaren -Ceuta, Belfast, Dresden, Wroclaw, Kaliningrado, Pristina, Sarajevo, Plovdiv, Istanbul eta Pafos- inguruko hamar begirada, enpatia eta elkarren arteko ulermenaren bila)

Donostia Kulturak eta Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak hartuko dute aurrerantzean, Giza Eskubideen Zinemaldiaren barruan:

- *Zinema eta giza eskubideen Europa*, gazteen nazioarteko topaketen eta Human Rights Film Network-en europar ordezkarien foroen bilgunea.

4.2.

KULTURAZ BALIATUZ GIZARTE PAREKIDEAGO ETA SOLIDARIOAGOA DEN, ANIZTASUNARI BEGIRAMENA DION ETA INKLUSIOA BERE EGITEN DUEN GIZARTE BATEN ALDE LAN EGITEKO

- *Herri zahar, Andre berri*, Emakundek bere gain hartuko du emakumeek praktika kulturaletan, tokiko tradizioetan eta irudikapenetan dagitena agerian jartzeko lana
- *Baitara baitak* erlijio-aniztasuna lantzen jarraituko du erlijioen arteko elkarriketa-mahaiaren bitartez. Pedro Arrupe Institutuak koordinatuko du eta Donostiako Udaleko Kultur Aniztasunaren Bulegoaren parte-hartzea izango du
- *Kontukontanitz*, Donostiako liburutegi-sareak eta Koldo Mitxelena Kulturuneak elkarrekin egingo dute lan, kontakizun txikiez baliatuta desgaitasun fisikoaren, intelektualaren, sentzorialaren nahiz mentalaren inguruan den ezjakintasunak sortutako mugak apur daitezen
- *Break a leg!*, edo hainbat gaitasun eszenan; hainbat gaitasun eta desgaitasun dituzten arte eszenikoetako profesionalekin bi urtez behin egiten den jaialdiaren errepikapena, Tabakalera, Donostia Kultura eta Kutxa Fundazioaren lankidetzaz
- 2016ko jardueren multzokoa izan gabe Hiriburutzaren Bulegoak sustatutako

² Hurrengo lerroetan azaltzen diren proiektuak Europako Kultur Hiriburutzaren harira sortu eta garatutakoak dira. Lehendik zeuden proiektuak edo Elkarriketaren idotik hiriko kultura-programekin garatuak baldin badira, halaxe adierazten da.

honako proiektu hau ere kulturaz baliatuz gizarte solidarioago bat lortzeko ondarearen partetzat hartu behar da, inolako zalantzarik gabe. 2017an hasi eta 4 urtetan zehar Musikeneko ikasleak eta Onkologikoko profesionalek musikoterapian ikertzen jardungo dute elkarrekin, minbizia duten pazienteei ematen zaien laguntza hobetzeko eta ikerketa aplikatuaren bitartezko ebidentzia sortzeko helburuak akuilatuta.

- DSS2016EU eta Atzegiren artean izandako elkarrizketaren segida, desgaitasun intelektuala duten pertsonen arte-adierazpenetan parte har dezaten eta beren lanak San Telmo Museoan, Aquariumen edo Itsas Museoan erakutsi daitezten. Donostiako Udalak bere gain hartuko du horren koordinazioa, Atzegi eta *Zurekin Donostia sortzen dugu* programaren arduradunarekin batera.
- Inklusioari zuzenean loturik dauden beste proiektu batzuk; besteak beste, 2017. edizioko *Olatu Talka* programan egongo direnak.

4.3.

PERTSONEN SARE BATEKIN KONTATUZ HERRITARREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEN SEGITZEKO

- Donostiako Udalaren Bulego Teknikoarekin lanean segituko duen boluntario-sarea.

4.4.

GIZARTE SORTZAILE BAT ETA PERTSONEN AHALDUNTZEA BULTZATZEN SEGITZEKO

- *Olatu Talka*, hautagaitzaren harira 2010ean sortu zen jaialdiak segida izango du, Donostia Kulturak bere gain hartuko baitu 2017tik aurrera; eta, nola ez, bere ezaugarriari eutsiko dio, herritarren parte-hartzeari -profesionalak eta amateurrak eskuz esku lanean- eta hiriko ezohiko espazioen erabilerari. Aurten aurkeztu diren proiektu kopuruari erreparaturik, % 15 gehiago izan dira, horietako asko berriak edota berritzaileak.
- *Olatu Talkak*, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak hartuko du gizarte eta kultura eremuetan herritartasun aktiboa sustatzeko 2015ean abiarazitako programa honen ondarea.
- *Hirikilabs*, TABAKALERA, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, arduratuko da kultura digitalaren eta teknologiaren inguruko laborategi honen jarraipenaz, eta mundu digitala, lankidetzako sorkuntza eta herritarren ahalduntzea lotuko dituen jarduerak antolatuko ditu.
- *Donostiapediatik* Wikiproiektura: Wikiliburutegiak. Donostipedia proiektuan erakunde anitzek hartu dute parte 2016an: Donostiako Liburutegi Sarea, Emakumeen Etxea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Udalaren euskara saila. Ageriko emaitza Donostipedia liburua eta Haur eta Gazte Literatura Wikiproiektuan idatzitako artikuluak biltzen dituen liburua dira. Donostipedia proiektuak ardatz asko zituen, eta tematika ere nahiko handinahia, hiriaren ezagutza, alegia. EHU eta Udalaren Euskara Zerbitzuak jarraituko dute proiektuarekin, bakoitzak bere aldetik. Beste lankidetzaren sare batzuk sortuko dituzte. Liburutegien sareak, bere aldetik, literaturan jarriko du arreta nagusia. Alde batetik Haur eta Gazte Literatura Wikiproiektuarekin

jarraituko du: eta beste proiektu berri bat abiaraziko du: «Idazlezainak».

Liburutegiak daramatzatenek idazleak ere zainduko dituzte funts bibliografikoez gain, eta ezagutzera emango dituzte Wikipedian haien artikuluak sortuz edo hobetuz.

«Wikiliburutegiak» deituriko egitasmo globalean, udal liburutegiez gain, Koldo Mitxelena Liburutegiak, HABEren liburutegiak eta Carlos Santamaria Liburutegiak (UPV/EHU) hartzen dute parte. 2016an hasitako wikilari egoiliarren formulak segida izango du 2017an ere. 2017an, gainera, edizio-topaketa batzuk burutuko dira herritar parte-hartzea sustatze aldera. Informazio guztia eskura dago esteka hauetan: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikiproiektu:Liburutegiak>

- *Ondarebideak* kultura-ondare digitalari bizitza emateko asmoz sortutako plataforma digitala, non bisitariak adituek sortutako erakusketak ikus ditzaketen eta baita euren erakusketa pertsonalizatuak sortu ere. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak zaindu eta handituko du plataforma digital hori, Ondare eta Artxiboen zerbitzuaren bitartez.

4.5.

EUROPAKO KULTUR ERAGILE, IDAZLE, ARTISTA ETA ABARREKIN LORTUTAKO SAREARI EUSTEKO

- *Other words / Beste hitzak*, Europa Creativeren programa hau Donostia Kulturak jarraituko du bultzatzen, geratzen zaizkion beste bi urte hauetan, eta proiektuari jarraipena emateko biderik egokiena aztertuko du sareko gainerako kideekin batera.
- *Corners of Europe*, alegia hainbat diziplina eta herrialdeetako artisten arteko lankidetzaproiektuak bultzatzeko europar periferiako artisten sarea. Sei euskal artista dabilta hor Europako 60tik gora artisten artean. www.cornersofeurope.org

- *Joan-etorriak*, Etxepare Euskal Institutuak jarraipena emango dio Donostia Kulturarekin batera kultura-hiriburuaren arteko sorkuntza-egonaldien programari: Donostia eta Wroclaw; Arhem (Herbehereak) eta Rijeka (Kroazia).
- *Chejov vs Shakespeare*, Etxepare Euskal Institutuak proiektu hau jarraitzea eta indartzea hartuko du bere gain, eta literatur ekoizpena euskaraz edo gaztelaniaz garatzen duten idazleen eta beste hizkuntza batzuetan idazten dutenen arteko sare berriak sortzeko aukera emango du horrek.
- *Europa bat-batean*, europar (eta amerikar) kulturen ahozko tradizioak ordezkatzen dituzten inprobisatzaileen sareari eustea Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko du bere gain, Mintzola Fundazioaren (Bertsozale Elkarteaz, batez ere) bitartez.
- *Jazzaldia* k Europako beste jazz jaialdi batzuekin kolaboratzen segituko du; hala, 2016an Hiriburutzaren harira izandako elkarriketak segida izango du.
- *EMusikek*, Musika eta Dantza Eskolak, urteroko jaialdiak antolatzen jarraituko du, baina 2016koak baino formatu txikiagokoak; formatuak formatu, aukera emango dio europar beste eskolekin harremanetan segitzeko, eta Eskolako ikasleen lana donostiarrengana hurbiltzeko.

4.6.**HIZKUNTZA-ANIZTASUNA
SUSTATZEN DUTEN SAREEKIN
SEGITZEKO**

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak bere gain hartuko du hizkuntza-aniztasunaren alorrean sortutako proiektu nagusiek eta sareek jarrai dezaten, horietan parte jartu duten gizarte zibileko eragileekin elkarlanean:

- *Hitzargiak*, elkar argitzen duten hizkuntzak; eremu urriko hizkuntzak biziberritzeko jardunbide egokiak sortzeko sarea, Soziolinguistika Klusterrarekin elkarlanean. Sare hori osatzen duten hizkuntzen artean galesa, frisia, kaxubiera edo Võroa daude, besteak beste, euskara, galiziera, katalana, bretoiera, Eskoziako gaelikoa eta irlandarekin batera.
- *Tosta*, arku atlantikoan sortutako kultura- eta hizkuntza-eragileen sarea, Topagunearekin elkarlanean.
- *Hizkuntza Aniztasunaren Europako Foroa*, UNESCO Etxeak koordinatzen duen foro hori dela eta sortutako sareari eustea eta bultzada ematea.
- *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa*; Kontseiluak ere bultzatuko du aurrerantzean, eremu urriko hizkuntzak dituzten beste Hiriburutza batzuetan presente egon dadin (Leeuwarden, Galway...).

4.7.**KO-PRODUKZIOA, ARTISTEN,
ANTZERKIGILEEN, MUSEOEN,
ANTZERKIEN ETA ABARREN
HARREMANAK HALA NOLA
SORTZAILE BERRIEN TREBAKUNTZA
BULTZATZEN SEGITZEKO**

- *Ikusmira berriak*, lengoia zinematografikoaren eta ekoizpen-baliabideen alorrean berrikuntzaren eta esperimentazioaren aldeko apustua egiten duten ikus-entzunezko proiektuak laguntzeko programa. Tabakalera eta Zinemaldia arduratuko dira haren jarraipenaz.
- *Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketa* ere Tabakalera eta Zinemaldiak jarraituko dute (aurreko deialdietan parte hartuak dira).
- *Itzultzaile Berriak* proiektua, Etxepare Euskal Institutuak eta EIZIEk (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarte) jarraituko dute euskaraz idatzitako literaturaren mugak zabaltzeko xedearekin. Itzulpen munduko atzerritar profesionali zuzendutako beka-deialdi berriak gehituko dira lehendik itzultzaile bulgariar, lituaniar, errusiar, txekiar, esloveniar, poloniar eta estoniarren artean egina den nazioarteko hautaketari.
- *Antzerkigintza berriak*, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak hartuko du programa honen programazioa, helburu hauekin: bertako antzerki-idazkiak sustatzea, eta bestelako literatur generoko idazleei, arte eszenikoaren profesionali eta antzerki esparruan kontatzeko istorioen bat duen edonori beka ematea.
- Donostia Kulturak jarraipena eman nahi dio Uda-gau bateko Ametsaren gisako diziplina anitzeko proiektu berritzaileei. Hiru urtean behin antzeko produkzio bat egiteko koordinazioa hartu du bere gain horretarako, eta beste erakunde batzuekin batera egin dezake, horiek hala erabakiz gero.

- *Komisario berriak*, euskal testuinguruan komisarioen praktika bultzatzeko eta sektorean profesional berriak sustatzeko proiektua. Programan Tabakalerak (Donostia), Azkuna Zentroak (Bilbo) eta Artium-ek (Gasteiz) parte hartu dutenez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren esku geratuko dira aurrerantzean egingo diren deialdiak.
- *Labore*, 2016an Donostiako Museo Sarea osatzen duten erakustokiak sorkuntza gune bilakatu dira, euskal eta nazioarteko artistak bilduta. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak jarraituko du proiektu horrekin hasitako lana, Gordailuren bitartez, eta lurraldeko museo guztietara zabalduko du sarea.

4.8.**EUSKADI-AKITANIA KULTURA-TOKI BAT INDARTZEN SEGITZEKO**

- *Mugalariak* Euskal Herriko eta Akitaniako antzerki publikoetako egonaldi eta bitartekaritzarako programa; Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak hartuko du horren jarraipenaren ardura, Donostia Kulturaren laguntzarekin.
- *Kim*, Iparralde eta Hegoaldetik zehar prestaturiko prestakuntza-ibilbide baten diseinua euskarazko haur eta gazteen arte eszenikoak aberastu eta biziartzeko; Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila eta Etxepare Institutua geratuko dira horren kargu, eta Donostia Kulturaren laguntza izango du.
- *Mugaz Haraindiko Koreografia Zentroa* Hiriburutzaren proiektuaren aurretik sortu zen Victoria Eugenia Antzokiaren eta Malandain Ballet Biarritz-en artean. DSS2016EU eta Donostia Kulturaren artean izan diren elkarrizketen erdian egon da, eta 2016aren ondoren berri eta indartu egingo da mugaz haraindiko lankidetzak.

Proiektu hauek (edo antzeko beste batzuek) publiko berriak sortzen lagunduko dute, kultura gure gazteengana hurbilduko dute.

4.8.**INGURUMENAREKIN BIZIKIDETZA SUSTATZEN SEGITZEKO**

- *Hidrologiak*, Urumea ibaiaren urak ardatz dituen ekimenak baditu dagoeneko sei edizio Cristina Enea Fundazioaren eskutik. Gorago esan bezala, programa bazen Hiriburutzaren aurretik ere, baina 2016arekin zabaldu eta indartu egin da; aurrerantzean ere halaxe segituko du.
- *Arkitektura: film-mintzairak*, aurrerantzean ere beren gain hartuko dute Tabakalerak eta Cristina Enea Fundazioak.

4.9.**SUKALDEAN ANIZTASUNA SUSTATZEN SEGITZEKO**

- *Sukaldean sortzaile* proiektuak sukaldeak berez dakartzan osasuna, kultura, sormena eta gizarte- balioen transmisioa bultzatzeko tresna gisa proposatzen du gastronomia. Basque Culinary Center-ek aurrerantzean ere gidatuko duen proiektu bat da.

4.10.

DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN MARKA NAZIOARTEAN ZABALTZEN SEGITZEKO

- Erakunde eta kultura-eragileen (sukaldaritzan aritzen direnak barne) arteko lanari eutsi. Helburu horretarako prestatu diren proiektu anitz aurreko puntuetan jasota dago jada.
- Donostia/San Sebastián ECoC europar sarean sartuko da, eta Donostia Kultura erakundea izango da bertan hiriaren ordezkari.

4.11.

BESTE PROIEKTU BATZUK

- *Euskal artistak itsasbazerrean* Donostiako Udalaren proiektu bat da, eta eremu publikoetan artistak zuzenean aritzearen aldeko apustu egiten du parte-hartze publikoaren eta pribatuaren uztarketa bultzatuz. Horren erakusgarri dira Victor Goikoetxearen *MiramArt* edo Maider Lopez-en *Iturriak* izeneko instalazioa (Udalaren eta Aldundiaren arteko lankidetzak-akordio baten baitan geratuko da); jarraipena izango du Cristina Iglesias-ek Santa Klara Uhartearen *Itsasargian* egingo duen esku-hartzearekin.
- 2016an sortutako GR sarearen gipuzkoar zatiaren mantentzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren eskutik, Mendi Federazioarekin elkarlanean.

4.12.

INFORMATIKA-TRESNAK

- *Behagunea*, hiriburutzaren jarduera eta ekitaldiek Interneten eta sare sozialetan lortzen duten eragina automatikoki neurtzeko sortutako webgunea. Donostia Kulturak bere antolamendu osora zabalduko du tresna horren erabilpena, eskaintzen dituen programazio eta jaialdien hala nola zerbitzuen inpaktua neurtze aldera.

4.13.

EBALUAZIOA. PROZESUAK ETA METODOLOGIAK

Aurrera begira, 2016ko Hiriburutzak prozesu eta metodologia multzo bat ere eskura uzten du.

- Erakunde arteko lana, Hiriburutza aurretik ohiko izanik ere, asko zabaldu da aldi horretan. Lankidetzak horri etorkizunean eusten bazaio, hori izango da legatuaren erronka gairitu izanaren bermerik hoberena. Egitez, jada sinergia berriak sortu dira Hiriburutzaren helburuak betetzen segitzeko asmoz (Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean, Etxepare Institutuaren eta Donostia Kulturaren artean...). Horren erakusgarri da, esate batera, San Telmo Museoaren eta Gordailuaren lankidetzak-hitzarmena; laster aurkeztuko da
- Ezagutzaren transferentziak denaz bezainbatean, proiektu eta egitasmo bakoitzaren dokumentazio-planak garatu dira. Ebaluazioa garrantzitsua izan da, planteamendu integral bat zehaztu da, proiektuaren ebaluazio globala egiteaz gain proiektu-gakoak eta beste zenbait eremutakoak ere ebaluatuko dituen. Hiriburutzak burututako ebaluazio-prozesuko emaitzetatik abiatuta kultura-proiektuak

ebalutzeko sistema bat eta adierazle kualitatibo batzuk. Ebaluazio prozesua burutzeko LKS eta Prospektiker aholkularitza enpresen eta EHUko irakasle eta ikasleen laguntza izan du.

LKS eta Prospektiker-ek egindako ebaluazioak badio ere Hiriburutzak kulturari eta eraldatzen tresna gisa duen eginkizunari buruzko eztabaida sustatu duela, txosten horrek berak ere esaten du eragina epe laburrera hautematerik ez dagoela herritarren balio zibikoen gaineko eragina edukitzeko helburuari edo herritar parte-hartzaileagoak sortzeko helburuari dagokienez. Hau da, goizegi da oraindik Kultura Hiriburutzak gizarte-berradiskidetzan eta hiriaren, lurraldearen eta Euskal Herriaren kultura berritzen eta eraldatzen zenbateraino lagundu duen jakiteko. Urte batzuk igaro beharko dira jakin ahal izateko. Ildo horretan, Udalak ikerketa-beka baterako deialdia egiteko (edo ikerketa-proiektu bat sustatzeko) konpromisoa hartu du, helburu jakin batekin: Donostiako jendea Kultura Hiriburutzaren ondoren nola aldatu den, alegia Hiriburutzak horiengan zenbaterainoko eragina izan duen, aztertzea.

70 argitalpen sortu dira; horietatik, 40 Internetetik jaitsi daitezke.

Dena dela, Hiriburutzarekin zerikusia duten 1.500 dokumentutik gora geratuko dira eskuragarri, dela Makusi bidez dela Tabakalera, Ubiken, erakusgai.

Halaber, enpresa eta gizarte zibilean finantzaketa lortzerakoan bereganatutako ezagutzak partekatu dira hiriko kultura-eragile nagusietako batzuei.

Nazioarteko eragileei buruzko datu-base bat ere prestatzen badabilta, Etxepare Institutuarekin, Tabakalarekin eta Donostia Kulturarekin partekatua izan dadin.

Azkenik, ECoC sarean egin izan dena Donostia Kulturaren bitartez segituko da egiten.

- Elkartu-ren laguntzaz Hiriburutzaren Bulegoak argitaratutako Kultur ekintzatarako

irisgarritasun gidaliburuak 2016ko ikaskuntzak biltzen ditu eta kultura-ekintza irisgarri eta inklusiboak diseinatzeko erreferentzia izango da.

- Parte hartu duten instituzio publikoek eragina izan dute hiritarren parte-hartze eremuan oinarritzen diren kultur politikak garatzeko estrategia eta tresna berrien aplikazioan. Hori horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak aldatu egingo ditu diru-laguntzen lerroak eta eraldatzeko gaitasuna duten proiektuak bultzatuko ditu. Kultura Sektorearen Arretarako Bulegoa ere sortuko du.

Kontuan izan behar dugu, orobat, kultur politikak garatzeko estrategia eta tresna berri horiek bultzada berezi bat Hiriburutzari esker jaso ahal izan badute ere, beste erakunde batzuek aplikatu ohi duten ikuspegi zabalago baten barruan sartzen direla. Horrela ulertu behar dugu, ondareztat jo ezin den arren, Kultura Sailak egiten duen lana edo beste kultur erakunde batzuk (Artium Museoak, adibidez) gauzatzen ari diren gogoeta estrategikoko prozesua.

- Europar elkarrizketen eta Erronken ildoaren jarraipena bi bidetatik: Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Lankidetzaren bitartez, STMaren laguntzarekin, baina lurraldeko beste guneetara ere zabalduz. Oraingo honetan aukeratutako gaia Lankidetzaren dateke. Jakiunde eta STMren eskutik Erronkak lerroarekin segituko da 2017an ere, "memoria biologikoa (ADNa), memoria psikologikoa eta memoria soziala: memoria feministak eta memoria sozioekonomikoa" lantzen.
- San Telmo Museoak, bestalde, eta ERRONKAK proiektuan San Telmo Museoko Eztabaida eta Dokumentazio Gunetik egiten den programazioaren barruan, Hiriburutzaren balioekin lotura estua duten gaiak lantzen jarraituko du: europar elkarrizketak Globernance-rekin; iraunkortasuna, Cristina Enea Fundazioarekin; lankidetzaren, Udaleko Lankidetzaren bitartez (agian komeni litzateke

Foru Aldundiak bultzatu nahi duen eztabaida-ildoarekin koordinatzea); giza eskubideak, Baketiken eta zenbait GK Eren laguntzaz...

- Artisten egonaldia dakarten eta ondare gisa bildutako programen ohartarazpen nagusi modura, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egonaldien gaiari buruzko lan-ildo bat zabalduko du Kultura Auzolanean planaren barruan. Erakundeen arteko koordinazio hobia lortu nahi da kontu horren gainean.
- Arte Eszenikoen sektoreko profesionalek burututako lan onaren ondoren erakundeek ahalegin berriak egin beharko dituzte horiei euren lanetan egonkortasuna eskaintzeko, hau da, euren profesional izaerari sendotasun bat emateko, dela Uda-gau bateko ametsaren gisako hiru urtean behineko edizioez, dela Azken trena Treblinkararen erako proiektu berritzaileak bultzatuz, dela beste proiektu batzuek.

5. Donostiako udaleko batzorde teknikoaren ondarea

Alkatearen 2014ko otsailaren 28ko ebazpen baten bitartez Udal Batzorde Tekniko bat sortu zen, xedea zuena Hiriburutzaren programan udal-sailen, udal-sozietate publikoen eta/edo erakunde pribatuen ekimenak, ideiak, proposamenak zein bestelakoak era koherente batean, eta 2016 Fundazioaren oniritziarekin, koordinatu eta txertatzea. Batzorde horrek lortu du, Alkatearen hitzetan, "hiria prestatuta izatea". Batzorde horren ebaluazioari eta utziko duen ondareari buruzko dokumentu independente bat argitaratuko da, alabaina lorpen garrantzitsuenak azaldu daitezke, labur-labur bada ere, eta hauek dira:

- Administrazioarengana errazago iristen da. Gune Publikoaren Erabilera Unitatea sortu da, bide publikoa okupatzeko eta aldi baterako jarduerak burutzeko baimenak kudeatzeko lehiatila bakarra.
- Kontzertuen, antzerki-emanaldien eta establezimendu publikoetan ematen diren formatu txikiko bariedade-ikuskitzen antolamendua kudeatzeko prozedura finkatu da, «aurretiko jakinarazpena» erabilita.
- Komunikazio alorrean, asteko kultur agenda paperean, DK, Turismo, Estrategia eta 2016 Bulegoaren artean adostuta. Udalak lehendik zituen webguneak egokitu, horietan eduki berria sartu eta eguneratu, eta informazio praktikoa eskaini honako gai hauei buruz: nola iritsi, nola mugitu, zer plan egin, helbide interesgarriak, udal sare sozialen bilduma, eta salbuespenezko neurri batzuen mende diren pertsonen zuzeneko informazioa emateko protokoloa.
- Komunikazio, sentsibilizazio eta trebakuntza kanpaina bat sortu eta abiarazi da, oinarriak jendetasuna, mugikortasun jasangarria, bide publikoaren erabilera zein garbiketa, eta hiriko paisaia babestea dituelarik: «atsegin zaitut».
- Mugikortasunean, mugikortasun jasangarrirako plana; erakundearteko (Mugikortasuna, Estrategia eta Turismo) lantalde baten eraketa eta Mugaz Haraindiko Mugikortasunaren Mahaia abiaraztea lurralde-mugikortasunarekin zerikusia duten gai nagusiak aztertzeke; hiriko semaforo sarearen hobekuntza; hiriko aparkalekuen egoerari buruzko azterlana; bidegorrien mapa eta planoen eguneratzea; TAO, lurrazpiko eta lurrazaleko aparkalekuak, hiriko gune estrategikoetan kokatutako berinape eta paneletan euskarriak jarrita, eta baita udal webguneetan eta paperean ere, lurraldeko eta inguruko turismo bulegoetan banatuak izan daitezke.
- Segurtasun, osasun eta prebentzio arloan, erakundearteko eta sailarteko koordinazio-batzorde bat eratu da ekitaldi handiek sortzen dituzten afekzioak kontrolatzeko eta koordinatzeko; APA (Aginte Postu Aurreratu) berria
- Nazioartekotzeko plan koordinatu bat, lan garrantzitsu bat Eurohirian / Hitzarmena ACBArekin (Agglomération Côte Basque Adour) kultura, turismo eta mugikortasun eremuan, eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduarekin; bisitaldia egindako delegazioen segimendua; batzorde ez iraunkor baten eta lantalde berezi baten sorrera kanpo ekintza, nazioartekotzea, senidetzea... lantzeko.
- Turismo alorrean, berriz, harrera-plan bat abiarazi da jendaurrean edo bide publikoan agerian egon behar duten administrazio langileak hizkuntzetan

trebatzeko; zerbitzuetako langileentzat, turismo eragileentzat eta udal langileentzat trebakuntza-plana eta harrerarako praktika onen eskuliburua; hirira nola iritsi, bertan nola mugitu eta antzekoei buruzko mapa eta ibilbideak egin edo eguneratu dira. Turismo-sustapenari dagokionez, azoka berezietan egon izan da, press trips-ak antolatu dira: Frantzia, Erresuma Batua, Alemania, Iparreko Herrialdeak, AEB, Japonia. Komunikabide azpimarragarrienen artean, hauek aipa daitezke BBC TV, The Daily Mail, Lonely Planet, The Independent eta The Evening Standard, Erresuma Batuan; Le Parisien, Le Figaro eta Saveurs, Frantzian; Vogue, Brasilen; Kapital Reise, Norvegian, Lufthansa Magazine eta DB Mobil, Alemanian; National Geographic, Holandan.

- Teknologia arloan, herritarren eskura dauden wifi guneen mapa eguneratzea; smart cities programako zati baten garapena
- Udal logotipoaren eta irudi korporatiboaren gaineko hausnarketak; «Living together» hiriaren (markari lotutako estrategia duen hiria) aurkezpeneko bideoa; udal webguneen gaineko komunikazio korporatiborako estrategia.
- Herritarrenganako zerbitzuaren kudeaketa integrala, indarrean dauden txartelei (hiritar txartela, Joko garbia, kirol txartela, dbizi, mugi...) hala nola bisitarienei (Sansecard, Dbizi, Mugi...) buruzko hausnarketa eta eztabaida, eta konponbide baten bilaketa, zerbitzu guztiak biltzen dituen txartel bakarra, ahal bada.
- Ondare materiala (hein batean lehen ere aipatu dugu): Miramart (Ondarretako tunela, eta aplikazio informatikoak eskaintzen dituen datuen kudeaketa nahiz beste sail batzuetarako eskaintzen duen potentziala); Iberdrolak fatxadari jarritako argiztapena, eraikin enblematikoen identifikazioa, Autobus Geltokiko informazio bulegoa.